

# BASQUE. MUSIC.

M pour Montreal 2026 azokan BASQUE. MUSIC.-en deialdian parte hartzeko irizpideak eta baldintzak.

## Ordainsaria

- Deialdian parte hartu ahal izateko fakturatzeko ahalmena izan behar da.
- Aukeratutako proposamenaren ordainketak faktura bidez egingo dira.
- Showcase-tan parte hartzeko aukeratuak izango diren taldeak eta/edo artistak laguntzeko ordainsariak BASQUE. MUSIC. bidai baldintzak dokumentuan oinarrituko dira.

## Nork parte hartu dezake BASQUE. MUSIC. deialdian?

- Deialdia nazioarteko estrategia duten Euskal Herriko musikari profesionalei eta erdi-profesionalei zuzenduta dago.
- Errolda edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete. Bere jarduera profesionala Euskal Herrian egiten duten musikariak izan behar dira.
- Zabaldu nahi den obra edo lanaren komunikazio-hitza euskara denean, errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek.

## Aukeraketa

- Azokaren zuzendaritza artistikoak deialdian aurkeztu diren proposamenen artean erabakiko du BASQUE. MUSIC. Showcase-an parte hartuko duen(ten) proposamena(k).
- Aukeratutako proposamenek Montrealera bidaiatzeko hegaldiak ekainaren 26a baino lehenago hartzeko konpromezua onartzen dute.

## Showcase-a

- Musikaren sektorean antolatzen diren showcase-ak kontzertu labur estrategikoak dira (normalean 45 minutu baino gutxiago irauten dute nahiz eta iraupena azokaren arabera aldatu daitekeen). Parte hartzaileek beren proposamena industriako profesionalen aurrean (managerrak, ziguilak, sustatzaileak, programatzaileak, komunikabideak etab.) erakusteko diseinatuta daude emanaldi hauek. Ohiko kontzertu batek ez bezala, showcase emanaldien helburu nagusiak parte hartzaileen musika sustatzea, saltzea eta hauen kontratazio-aukerak lortzea dira.

# BASQUE. MUSIC.

## **Komunikazioa**

- Showcase-an parte hartzeko aukeratua izan den proposamenak BASQUE. MUSIC. markarekin sortutako promozio euskarriak partekatzeko konpromezua hartuko du plataforma honen sustatzaileak diren erakundeak aipatuaz.

## **BASQUE. MUSIC.**

BASQUE. MUSIC Euskal Herriko musika sorkuntza eta industria nazioartekotzeko plataforma da; Eusko Jaurlaritzak, Etxepare Euskal Institutuak eta Musika Bulegoak lankidetzan garatutako ekimen publiko-pribatua.